# *KOSTUEN EGITURA*



Kostuak gure produktuak izango dituen diru irteerak dira. Atal honek gure aplikazioak izango dituen kostu guztiak zehaztu eta azalduko ditugu.

Proiektua aurrera eraman dugun heinean, kostuak bi zatitan banatu ditugu: hilabeteko kostu finkoak eta hasieran eta behin bakarrik ordaindu beharko ditugun kostuak.

Alde batetik, hilabetean gure enpresak izango dituen kostu finkoak kalkulatu ditugu:

<table>
<tr><th>KOSTUAK HILABETEKO</th><th>KOPURUA</th></tr>
<tr><td>Soldatak</td><td>800€/pertsona bakoitzeko</td></tr>
<tr><td>Botilak</td><td>75 BOTILA → 700€ ordaindu beharrekoa guztira<table><tr><td>ZUZEN</td><td>350€</td></tr><tr><td>BASK</td><td>350€</td></tr></table></td></tr>
<tr><td>Kontu korrontearen mantenimendua</td><td>2€/hilabete → 24€/urte</td></tr>
<tr><td>UGGASA</td><td>30€/hilabete → 360€/urte</td></tr>
<tr><td>GUZTIRA</td><td>3.902€/hilabete → 46.824€/urte</td></tr>
</table>

Urtarrilean izango dugu kostu kopuru handiena; izan ere, hilabete horretan, Berria eta Diario Vasco egunkarietan argitaratutako aldizkaria, ETB2 kanalean hilabete osoan ikusiko den publizitatea, kontu korrontearen kostua eta soldatak barne daude. Beste hilabeteetan, aldiz, ez ditugu kontuan hartuko Diario Vasco, Berria eta horrelako kostuak.

Bestalde, edukiko genituzkeen kostu aldakorrak ere kalkulatu ditugu. Kontuan izanda, ETB2 kanalaren bitartez, soilik hilabete bateko publizitatea izango dugula, eta El Diario Vasco eta Berria aldizkarietan behin txertatuko dutela gure iragarkia, hauek izango lirateke gastuak:

| KOSTUAK | KOPURUA |
|---|---|
| **ETB2**<br>- **4 astez**<br>- **Astelehenetik ostiralera (11:30-14:00)** | 1.000€/ aste → 4.000€/hilabete |

| | |
|---|---|
| **El Diario Vasco** | 4.195€ |
| **Berria** | 475’32€ |
| **GUZTIRA** | 5.670’32€ |

Hasieran edukiko ditugun kostuak, hau da, urterrileko hilabetean izango ditugunak, **5.670’32€**-koak izango dira. Hilabete bakoitzean izango duguna, aldiz, **3.902€**-koa izango da, eta horrek urte bukaeran **46.824€-**ko kostuak izatera eramango gaitu. Gure diru sarrerekin alderatuz, argi dago diru nahikoa dugula kostu guztiak asetzeko.